

DIRU-ITURRIAK

Proiektu guztiak hasteko eta mantentzeko beharrekoak dira diru-iturriak izatea, hala nola, hasierako inbertsioak eta enpresaren irabaziak. Gure kasuan, "Sagardoteka" aurrera eramateko, nabe industrial bat alokatuko dugu denon artean, horretaz gain, bakoitzak 4000 euroko aportazioa egingo dugu proiektua aurrera eramateko. Diru gehiagoren beharra izanez gero, kreditu erakunde bati mailegua eskatuko genioke.



Gure diru-iturri nagusia bezeroek gure zerbitzuengatik ordainduko diguten dirua izango da, hala nola, sagardotegian jateagatik, diskotekako sarrerengatik eta edariak konsumitzeagatik. Diskotekako sarrerak prezio finkoa izango du eta sagardotegiko afari eta bazkariak eta edariak berriz, kontsumitutakoaren arabera izango dira noski, hau da, gehiago kontsumitu ahala ordaindu beharreko kantitatea handiagoa izango da. Hala ere prezio hauek orokortu egingo genituzke, diru sarrerak, gutxi-gorabehera behintzat, finkatzeko.



Beste diru-iturri bat publizitatea izango da, non beste enpresa batzuei egingo diegun publizitatea, noski, gure arloko enpresak izango dira, hala nola, sagardo eta edari enpresak. Modu berean, gure enpresaren publizitatean inbertituko genuke diru hori, horrela bezeroak eskuratuz eta azken batean inbertitutakoa baino diru gehiago eskuratuz.



ZERBITZUA:	KOSTUA:	“SALMENTAK” (hilabetero)	SARRERAK:
Sagardotegia (bazkariak eta afariak)	37€	480	17760€
Diskotekako sarrera	12€	500	6000€
Afaria + diskoteka	44€	80	3520€
Edariak (denek ez dute berdina balioko, orokortu egingo dugu ordea)	4€	1000	4000€
GUZTIRA:	31280€		